

Maletak egiteaz

Daukadan guztia daramat gainean.

Edo: Nirea den guztia daramat.

Neukan guzti-guztia neraman, baina ez zen nirea. Beste erabilera baterako eginak edo beste norbaitenak ziren. Txerri-laruzko maleta gramofono-kutxa zen. Gabardina, aitarena. Belusezko lepodun beroki dotorea, aitonarena. Galtza bonbatxoak, nire osaba Edwinenak. Laruzko azpantarrak, nire auzoko Carp jaunarenak. Artilezko eskularru berdeak, Fini-izekorenak. Ardo koloreko zetazko lepokoa eta nezeserra besterik ez ziren nireak, azken Gabonetako opariak.

1945eko urtarrilean, gerrak pizturik zirauen. Negu gorrian, zeinek daki nora, errusiarrengana joan beharrak eragindako izualdian, denek zerbait eman nahi zidaten, zerbait lagungarria, konponbidea ez bazen ere. Ezerk ez baitzuen ezer konpontzen. Erremediorik gabe errusiarren zerrendan agertzen nintzelako, denek zerbait eman zidaten, nork bere pentsamenduak gordez. Eta nik onartu egiten nuen, nire hamazazpi urteekin, joanaldia une egokian heltzen zitzaidala pentsatuz. Ez litzateke arrazoia errusiarren zerrenda izan beharko, baina gauzak gehiegi okertzen ez badira, agian niretzat lagungarri. Titare baten tamaina zeukan nire herritik, harriek ere begiak zeuzkaten herri honetatik, irten nahi nuen. Beldur izan beharrean, ezinegona ezkutatu beharra. Kontzientziaren harra hozkaka zebilkidan, nire ahaideentzat etsigarria zen zerrenda hori niretzat onargarria zelako. Haiek, niri atzerrian zerbait gertatzearen beldur ziren. Nik, ezagutzen ez nauten leku batera joan nahi nuen.

Baina zerbait jada gertatu zitzaidan. Debekaturiko zerbait. Berezia, itsusia, lotsagabea eta ederra. Parkean, haltz artean, atze-atzean, landa-muinoen beste aldean. Etxerako bidean parkearen erdiraino joan nintzen, jai-egunetan orkestrek jotzen zuten kiosko biribilaren barrura. Hor eseri nintzen une batez. Argi izpiek, maisuki zizelkatutako egurrak zulatzen zituzten. Zirkulu, lauki eta trapezio hutsen beldurra sumatu nuen, erpedun kiribil zuriez kateaturik. Nire noraezaren irudia zen hori, eta nire amaren aurpegiko izuarena. Kiosko horretan zin egin nion neure buruari: ez naiz inoiz parke honetara itzuliko.

Berriz ez itzultzen saiatu arren, gero eta lehenago bueltatzen nintzen, bi egunean behin. Rendezvous bila, parkean horrela baitzuen izena.

Bigarren rendezvousera lehendabiziko gizon berarekin joan nintzen. ENARA zuen izena. Bigarrena berria izan zen, IZEIA zeritzon. Hirugarrena BELARRA deitzen zen.

Ondoren, HARIA etorri zen. Gero URRETXORIA eta TXIMELA. Geroago ERBIA, KATUA, KAIOA. Eta orduan, PERLA. Geuk bakarrik genekien bakoitzari zein izen zegokion. Parkean, arreske genbiltzan, eta nik neure burua ar batetik bestera joaten uzten nuen. Uda zen, urkiek azal zuria zuten, jasmin eta intsusa zuhaixka artean hazten zen hostoz osatutako horma berde igarogaitza.

Maitasunak bere urtaroak ditu. Udazkenak bukaera eman zion parkeari. Egurrak biluztu egin ziren. Rendezvousak gurekin etorri ziren Neptun bainu-etxera. Burdinazko atariaren ondoan zegoen, ikur obal batean zintzilik, zisnea. Astero elkartzen nintzen adinez bikoizten ninduen harekin. Bera errumaniarra zen. Ezkondua. Bere izena ez dut esango, ezta ni nola deitzen nintzen ere. Ez ginen batera sartzen, berun-beirazko leihatilako kutxazainari, harrizko zoru distiratsuari, erdiko zutabe biribilari, axuleiuetako arrosei, egur landuzko eskailerei elkarrekin geratu garela bururatu ez zekien. Gainerako guztiekin batera joaten ginen igeri egitera. Sauna-geletara iritsi arte ez ginen elkartzen.

Garai hartan, eremuan emandako garaia baino lehentxeago, baita itzuli ondoren ere, 1968ra arte, nik herrialdea utzi nuenera arte, edozein rendezvous zela-eta espetxeratua izan ahalko nintzateke. Bost urtez, gutxienez, harrapatzen baninduten. Batzuk harrapatu zituzten. Parketik edo bainu-etxetik, itaunketa bortitzen ondoren, zuzenean espetxera. Hortik, kanal ondoko zigor-eremura. Kanaletik, gaur badakit, ez zen itzultzerik. Hala ere norbait itzultzen bazen, hilotz ibiltari bat besterik ez zen. Zaharkitua eta lur jota, inolako maitasun motatarako ezgai.

Eta eremuko egonaldian harrapatu izan banindute, bertan hilko ninduten.

Egunez egun, eremuko bost urteen ondoren, kaleko jendetzaren artean noraezean nabilela, atxiloketa baten aurrean esateko esaldi egokienak hausnartzen ditut. BETE-BETEAN HARRAPATUTA. Prest neuzkan epai horren kontra hamaika aitzakia eta zurigarri. Ezkutuko hatua daramat ganean. Isiltasunean hain sakon eta hain denbora luzez ezkutatu naizenez, orain ezin dut neure burua hitzen bidez adierazi. Hitz egiten badut, beste era batera ezkutatu besterik ez dut egiten.

Azken rendezvous uda hartan, haltz parketik etxerainoko bidea luzatzearen, enparantza nagusiko Hirutasun Sainduaren elizara sartu nintzen kasualitatez. Kointzidentzia hori patuari zegokion. Etorkizuna ikusi nuen. Aldameneko aldare ondoan, zutabe baten ganean, santua zegoen zutik, ardi bat zeramala beroki grisaren lepo gisa. Lepondoko ardi hori isiltasuna bera zen. Badira isiltzen diren gauzak. Baina

nik badakit zertaz ari naizen, isilik egotea eta isiltasuna lepondoan zamatua izatea gauza bera ez direla esaten badut.

Eremuan egon aurretik, bitartean eta ondoren, hogeita bost urtez, estatuaren eta familiaren beldurrez bizi nintzen. Hondamendi bikoitzaren beldur, estatuak ni kriminal gisa giltzaperatu, eta, familiak ni lotsaizuntzat hartu eta baztertzearen beldur. Kaleko zalapartaren artean, erakusleihoetako ispiluei, tranbia eta etxeetako leihoei, iturri eta putzuei begiratzen nien sinesgogor, neure buruari ikusezina ote naizen galdezka.

Nire aita marrazketa irakaslea zen. Eta AKUARELA hitzak, hark aipatzen zuen bakoitzean, ostikada batek bezala astintzen ninduen, Neptun bainu-etxea buruan. Hitz hark bai baitzekien noraino heldu izan nintzen. Mahaian geundela, nire amak esan ohi zuen: ez ezazu patata sardexkaz sastatu, apurtu egiten da-eta, koilara erabili, sardexkaz haragia besterik ez. Lokietan odola borborka nabaritzen nuen. Zergatik haragia aipatu, patata eta sardexkaz ari bada. Zein haragiri buruz ari da. Rendezvousek sastatu zizkidaten niri erraiak. Ni neu nintzen neure buruaren lapur, hitzak nahi gabe atera eta harrapatu egiten ninduten.

Nire amak, eta bereziki nire aitak, hiritxo honetako alemaniar guztiek bezala, txirikorda horidun eta galtzerdi zuridun edertasunean sinesten zuten. Hitlerren sudurpeko lauki beltzean, Transilvaniako saxoniarrengan, arraza ario gisa. Nire sekretua, fisikoa soilik aintzat hartuta ere, nazkagarrikeria gorena zen. Errumaniar batekin, arrazaren lotsabide, gainera.

Familiarengandik alde egin nahi nuen, eremura bazen ere. Atsekabetzen ninduena nire ama zen, berak ez baitzekien zein gutxi ezagutzen ninduen. Kanpoan nabilen bitartean, nik bera baino maizago oroituko nauen ama.